


GAZTEMATIKA

2022-2023ko
EBALUAZIOA





Gaztematika

Gipuzkoako Haur eta Gazteen Sustapenerako Sarea

www.gipuzkoangazte.eus



2022-2023ko planaren ebaluazio txostena

2023ko ekaina



AURKIBIDEA

A. Aurkezpena	4
B. Ekintzen garapenaren ebaluazioa	8
C. Ondorio nagusiak	23
D. Sarearen lurralde mailako funtzionamendua	26





A. Aurkezpena

Dokumentu honen bidez, 2023ko ekainean Gaztematikaren 2022-2023 Planari buruz egin dezakegun balorazioa aurkezten dugu.

Planean aurreikusitako 27 ekintzetatik 25 garatu dira, eta horietako batzuetan aldaketak sartu ditugu.

Martxoko foroan bi ekintza bertan behera utzi genituen: “Gazteekin elkarlanean: Gazteen eta administrazioaren arteko egitasmoa” eta “Sexkuntzaren podcasta: Ekoiztu eta zabaldu”

Legegintzaldi honetako azken ikasturtea da. Beraz, ikasturte honen ebaluazioarekin batera legegintzaldi osoarena ere egiten ari gara, hau da, 2019-2023 aldiarena.



ILDO-ESTRATEGIKOAK	LAN-EREMUAK		
	HAURRAK	NERABEAK	GAZTEAK
Haur, nerabe eta gazteen ongizatea sustatu	H1- Haurren ongizatea sustatu, emozioen kudeaketa landu, jazarpen-egoerak ekiditeko baliabideak eskaini eta prebentzioa lantzea	H9- Nerabeen ongizate emozionala sustatzea, ohitura osasungarriak eta kontsumo arduratsua bultzatzea eta arrisku-egoerei aurrea hartzea	H18- Gazteen osasun afektibo-sexuala eta sozio-emozionala bultzatzea
	H2- Gurasotasun positiboa landu eta sustatzea	H10- Gurasotasun positiboa lantzen jarraitzea	
Haur, nerabe eta gazteen aukera-berdintasuna bultzatu	H3- Haurren artean genero-estereotipoak ekiditea eta pairatzen dituzten sexu-abusuen errealitatea prebentzioaren ikuspuntutik ikusarazi eta esku hartzeko markoa definitzea	H11- Nerabeekin berdintasuna lantzea, aniztasun afektibo-sexualaren errespetua sustatzea eta sexu-hezkuntza bultzatzea.	H19- Gazteei etxebizitza eskuratzeko bidea erraztea
	H4- Jatorri eta testuinguru desberdinetako haurren aukera-berdintasuna sustatzea, eta kulturartekotasuna lantzea	H12- Nerabeen errealitate anitza ikusgai egitea kulturartekotasuna bultzatuz.	H20- Gazteen lan-aukerak zabaltzea
Haur, nerabe eta gazteen herritartasun aktiboa erraztu, haien parte-hartzea bultzatu	H5- Haurren artean euskararen erabilera sustatzea, haurtxokoetan herriko beste eragileekiko elkarlana bultzatuz	H13- Gazteleketan zein beste gune informaletan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzea, herriko eragileen laguntzarekin.	H21- Gazteentzako sustapeneko eskaintza hobetzea
	H6- Haurren garapen pertsonala eta autonomia sustatzea jolasaren eta aisialdiko programen bidez	H14- Nerabeen garapen pertsonal eta soziala, autonomia eta esperimantazioa sustatzeko aisia-programak bultzatu eta eskaintzea	H22- Gazteeen partaidetza indartzeko estrategiak sustatzea
	H7- Haurrak herritar aktibo izateko hezkuntza bultzatzea, beren nortasun digitala ahalik eta era positiboenean eratzeko lan egin/laguntzea eta beren partaidetza sustatzea.	H15- Nerabeei beren nortasun digitala ahalik eta era onuragarrienean bizitzen laguntzea	
	H8- Ingurumenarekiko jarrera arduratsuak haurrekin lantzen hastea	H16- Nerabeen partaidetza bermatu toki mailako bideak zehatzuz eta arlo komunitarioa garatuz. H17- Ingurumenarekiko jarrera jasangarriak eta praktika onak sustatzeko, nerabeak sentsibilizatzea	
	LAN-EREMUAK KUDEAKETA		
Gaztematikaren kudeaketarako partaidetzazko gobernantza bultzatu	H23- Haur, nerabe eta gazteen eskubide eta beharrak erakundeen agendan txertatzea		
	H24- Gaztematikako eragileen elkarlana sustatzea toki zein lurralde mailan		
	H25- Aldundian eta udaletan zeharkakotasunaren kultura eta dinamika sortzen laguntzea		
	H26- Komunikazio eraginkorra garatu eta indartzea, batetik, gizartera eta haur, nerabe eta gazteengana iristeko, eta bestetik, eragileei Gaztematika ezagutzera emateko eta koordinatzeko		
	H27- Gaztematikako profesionalen ezagutza eta kualifikazioa bultzatzea, berrikuntzarako eremu eta baldintzak sustatuz		
	H28- Planifikazioa hobetzea, berariazko diagnostikoak eta ebaluazioak bultzatuz		


LAN-EREMUAK
ILDO
ESTRATEGIKOAK

HAURRAK

NERABEAK

GAZTEAK


Haur, nerabe eta gazteen ongizatea sustatu	H1- Haurren ongizatea sustatu, emozioen kudeaketa landu, jazarpen-egoerak ekiditeko baliabideak eskaini eta prebentzioa lantzea	H9- Nerabeen ongizate emozionala sustatzea, ohitura osasungarriak eta kontsumo arduratsua bultzatzea eta arrisku-egoerei aurrea hartzea	H18- Gazteen osasun afektibo-sexuala eta sozio-emozionala bultzatzea
	1.-Haur eta nerabeen ongizateari buruzko ikerketa		XX.-Sexkuntzaren podcasta Ekoiztu eta zabaldu
Haur, nerabe eta gazteen ongizatea sustatu	H2- Gurasotasun positiboa landu eta sustatzea	H10- Gurasotasun positiboa lantzen jarraitzea	
	2.- Treba gurasoak: prestakuntza		
Haur, nerabe eta gazteen aukera-berdintasuna bultzatu	H3- Haurren artean genero-estereotipoak ekiditea eta pairatzen dituzten sexu-abusuen errealitatea prebentzioaren ikuspuntutik ikusarazi eta esku hartzeko markoa definitzea	H11- Nerabeekin berdintasuna lantzea, aniztasun afektibo-sexualaren errespetua sustatzea eta sexu-hezkuntza bultzatzea.	H19- Gazteei etxebizitza eskuratzeko bidea erraztea
	3.-Sexkuntza haurtxokoetan	8.- Sexkuntza gaztelekuetan: Sexualitate-txokoak	10.-Etxebizitzari buruzko ikerketa: Gipuzkoako gazteen mugikortasuna
	4.- Sexu-indarkeria haurtzaroan: Prebentzioa		
	H4- Jatorri eta testuinguru desberdinetako haurren aukera-berdintasuna sustatzea, eta kulturartekotasuna lantzea	H12- Nerabeen errealitate anitza ikusgai egitea kulturartekotasuna bultzatuz.	
	5.- Aukera-berdintasuna zerbitzuetan: Inklusio-mahaia		
Haur, nerabe eta gazteen herritartasun aktiboa erraztu, haien parte-hartzea bultzatuz		H14- Nerabeen garapen pertsonal eta soziala, autonomia eta esperientziazko sustatzeko aisia-programak bultzatu eta eskaintzea	H21- Gazteentzako sustapeneko eskaintza hobetzea 11.-Treba gazteak: Ikastaroak H22-Gazteen partaidetza indartzeko estrategiak sustatzea
		9-Erasmus+: Proiektu berriak	
	H7- Haurrak herritar aktibo izateko hezkuntza bultzatzea, beren nortasun digitala ahalik eta era positiboenean eratzeko lan egin/laguntzea eta beren partaidetza sustatzea.	H15-Nerabeei beren nortasun digitala ahalik eta era onuragarrienean bizitzen laguntzea	XX.-Gazteekin elkarlanean: Gazteen eta administrazioaren arteko egitasmoa
	6.- Esku-hartze birtuala: Maila optimorako bidean		
	H8- Ingurumenarekiko jarrera arduratsuak haurrekin lantzen hastea	H17- Ingurumenarekiko jarrera jasangarriak eta praktika onak sustatzeko, nerabeak sentsibilizatzea	
	7- 2030 Agenda: Garapen Jasangarrirako Hezkuntza		



KUDEAKETA

Gaztematikaren
kudeaketarako
partaidetzazko
governantza
bultzatu

H23-Haur, nerabe eta gazteen eskubide eta beharrak erakundeen agendan txertatzea.
12.-HNGen sustapeneko inbertsioa: Gipuzkoakoa aztertu
13.- HITZegiten
H24-Gaztematikako eragileen elkarlana sustatzea toki zein lurralde mailan
14.- Herri txikiak: Haur eta nerabeen sustapena lantzeko zerbitzu-proposamena
15.- Gazteria Legea: Garapenaren segimendua
H25-Aldundian eta udaletan zeharkakotasunaren kultura eta dinamika sortzen laguntzea
16.- UPV/EHU: Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearekiko elkarlana
H26-Komunikazio erangikorra garatu eta indartzea, HNGekin komunikatzeko, beste eragileei sarearen berri emateko eta haiekin koordinatzeko eta, azkenik, komunitate osoareri Gaztematikaren lana ezagutzera emateko
17.- Gaztematikaren komunikazioa: Planeko ekintzei estaldura eman
18.-Gaztematika datutan
H27-Gaztematikako profesionalen ezagutza eta kualifikazioa bultzatzea, berrikuntzarako eremu eta baldintzak sustatuz
19.- Treba profesionalak: Hezitzaileak
20.- Treba profesionalak: Teknikariak
21.- Arduradun politiko berriak: Harrera prestatu
H28- Planifikazioa hobetzea, berariazko diagnostikoak eta ebaluazioak bultzatuz
22.- HNGen arloa: Adin-tarte bakoitzeko erronka nagusiak
23.- Azken lau urteetako HNGen sustapenaren argazkia
24.- Profesionalen erroldak
25- Legegiltzaldiaren ebaluazioa (2019-2023)



B. Ekintzen garapenaren ebaluazioa

Jarraian ekintza bakoitzaren ebaluazioa egingo dugu modu eskematikoan. Azalpen guztietan eskema bera izango da: lehenbizi, ekintzaren helburua, egoera (kontuan hartu txostena maiatzaren 27an osatu dela) eta adierazleak, ondoren, zer lortu den eta egin den balorazioa eta, azkenik, datorren ikasturtera begira zein asmo dauden adieraziko da:

H N G K 1. HAUR ETA NERABEEN ONGIZATEARI BURUZKO IKERKETA. Arduraduna: Ainara Iraeta

HELBURUA:	Lurraldeko haurren eta nerabeen errealitateari buruz dugun informazioa aberastea.		
EGOERA:	Bukatuta		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Lagina bete	2.000	10.500	
Apirilerako txostena egin	Egina	Egina	
ZER LORTU DA?			
Gipuzkoako 8-14 urte bitarteko haur eta nerabeek beren ongizateari buruz duten pertzepzioa hobeto ezagutzea lortu dugu. 8 dimentsiotako informazioa eskuratu dugu (familia-bizitza, ongizate materiala, osasuna, autonomia, eskola-bizitza, lagunak, aisia, auzoa/herria eta besteak) eta euren beharretan sakondu dugu. Parte-hartzea altua izan da; Gipuzkoako udalerrien % 88ek eta 68 eskolek parte hartu dute. Zortzi dimentsio horietan oinarrituz, ikerketa honek aukera eman digu euren gogobetetze maila handiena eta txikiena zerk eragiten dien ezagutzeko. Ikerketarekin lortu da:			
<ol style="list-style-type: none"> Haien ikuspegia eta kezkak ezagutzea. Hau erabilgarria izan daiteke politika publikoak diseinatu eta ekintzak planifikatzeko. Zerbitzu eta baliabide lagunkoiagoak eta haien behar eta lehenasunetara egokituagoak sustatzeko informazioa jaso da. Haien ongizatea hobeto ezagutzeko tresna bat diseinatu eta testatu da. 			
BALORAZIOA:			
Ikerketaren eta prozesuaren balorazioa positiboa da. Hala ere, oraindik bukatu gabeko prozesua da, haur eta nerabeei ez baitzaizkie emaitzak jakinarazi.			
HURRENGO IKASTURTEA			
Ikerketa honen jarraipena haur eta nerabeekin hausnarketa-taldeak zehaztu eta lanketa kualitatiboa garatuz egin daiteke.			

H N G K 2. TREBA GURASOAK: Ikastaroak Arduraduna: Jon Vicente

HELBURUA:	Gurasoak hezkuntza-gaitasunetan trebatuz, haurren eta nerabeen bizi-kalitatea eta aukerak hobetzea. Tresna arina eta eraginkorra izan nahi du, hainbat eragileren lankidetzaren bidez, guraso izateari dagokion ezagutza lurralde osoan transmititzeko. Hazieraren eremu hori hain aldakorra izanik, gainera, bizia eta malgua izan nahi du, unean uneko errealitatera eta eskaerara egokitu ahal izateko.		
EGOERA:	Bukatuta		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Parte hartu duten teknikarien balorazioa	> 7,5	8,97	
Parte hartu duten gurasoen balorazioa	> 8,5	9,21	
Antolatzen den jarduerakopurua (hitzaldi edo tailerrak)	> 80	104 hezkuntza-jarduera (96 hitzaldi + 8 tailer)	
ZER LORTU DA?			
Programaren bigarren urtea izanik, aurten handitu eta egonkortzeko urtea izan da.			
Programari dagokionez, 12 gai jorrazteko katalogoa sortu da aurten ere; aurreko urtekoarekin alderatuta, hiru gai berri jorratu dira. Horretarako, gurasoen eskaerak hartu dira kontuan. Katalogoa 9 trebatzaileekin gauzatu dugu.			
Guztira, 48 herrik parte hartu dute programan, eta 105 hezkuntza-jarduera antolatu dira: 96 hitzaldi eta 9 tailer. Horietako bi geratu dira bertan behera.			

Bata, nahikoa jendek izena eman ez zuelako, eta bestea, pertsona bakarra gerturatu zelako. Aurreko urtean 31 herri, 73 hitzaldi eta 6 tailer izan ziren. Hezkuntza-jarduera horietako bat Zarautz-Lasarte eremuko Berritzeguneak eskatuta egin da, eskoletako zuzendarientzat. Horrez gain, Erreneriako guraso-talde baten beharrei erantzunez, katalogoan ez zegoen tailer bat antolatu dugu.

2.493 gurasok parte hartu dute programan, aurreko urtean 1.450 izan ziren. Azpimarratzekoa da amen eta aiten arteko aldea; izan ere, % 84,1 emakumezkoak dira eta % 15,9 gizonezkoak. Gainera, alde hori igo egin da aurreko urteko datuekin alderatuta (% 80 eta % 20, hurrenez hurren). Hezkuntza-jarduera bakoitzean parte hartu dutenen batezbestekoa 23,7koa da, baina azpimarratu behar da alde handia egon dela batzuen eta besteen artean: 3 eta 145 lagun arteko saioak izan ditugu.

Gurasoen balorazioak oso onak izan dira: orokorra 9,21 izan da hitzaldietan 9,22koa eta tailerretan 9,1.

Komunikazio-arloan, TREBA programak erreferentzialtasuna lortu du gurasoen eta hezkuntzaren esparruan; eta gauza bera gertatu da irudiaren identifikagarritasunarekin ere.

Ekintzan parte hartu duten udal guztiei estaldura ematea lortu da, eta zenbait kasutan enkargu zehatzei ere erantzun zaie. Horrekin batera, webgunea egokitu eta programa osoaren agenda eskuragarri izan da bertan.

BALORAZIOA:

Balorazioa oso positiboa da: Udalen eta gurasoen parte-hartzea altua izan da. Gainera, gurasoen iritzia oso ona da. Teknikariei ebaluazio-galdetegia pasatu ez zaien arren, zuzeneko harremanean jaso dugunaren arabera, oro har oso gustura geratu dira.

Azpimarratu behar da Treba Gurasoak programa garatzeak lan-karga handia ekarri duela, bai antolakuntza guztian, bai komunikazio arloan.

DATORREN IKASTURTEAN

Treba Gurasoak programa eskaintzen jarraituko dugu.

Ikasturte honetan lortutako esperientziarekin, eta guraso eta teknikarien balorazio eta iritzia kontuan hartuta, hobekuntzak eta aldaketak egingo dizkiogu programari, besteak beste, katalogoa eguneratu, trebatzaile berriak bilatu, antolakuntza hobetu...

Programa hau gauzatzeak ekartzen duen lan-karga handia kontuan izanda, aurrera begira aztertu beharko da programa nola garatu behar den eta, zehazten denaren arabera, baliabideak egokitu.

H N G K 3. SEXKUNTZA HAURTOKOETAN

Arduraduna: Josean Castaño

HELBURUA:	Dokumentu bat sortzea, haurtxokoetan hezitzaileek haurrekin sexu-hezkuntza lantzeko gida moduan erabili dezaten.		
EGOERA:	Martxan dago		
ADIERAZLEAK:	Dokumentua sortu, haurtxokoetan hezitzaileek haurrekin sexu-hezkuntza lantzeko gida moduan erabil dezaten.	ESTANDARRA	EMAITZA
		Egina	Bukatzeko
ZER LORTU DA?			
Sortzen Aholkularitzari dokumentu bat idazteko eskatu diogu, etorkizuneko gidaren oinarri izango dena.			
Horren ondoren, prozesu bat zehaztuko da hezitzaileak gai horretan trebatzeko eta, haurtxokoaren testuinguruko estrategia baliagarriak definitzean, haien ekarpenak jasotzeko.			
Hiru fasez osatutako ibilbidea egin dugu:			
→ <u>1. fasea:</u> Oinarritzko dokumentua egiteko aditua identifikatu genuen.			
→ <u>2. fasea:</u> Enkargua egin genion eta dokumentua eta proposamena osatzen ari da.			
→ <u>3. fasea:</u> Dokumentua eta proposamena uztailaren hasieran espero ditugu.			
BALORAZIOA:			
Orain arte egindako proposamena egokia da. Lehenengo kontrastea egin ondoren, dokumentuaren azken bertsioaren zain gaude.			
HURRENGO IKASTURTEA			
Dokumentu hori izango da hurrengo ikasturtean haurren hezitzaileekin prozesu bat zehazteko oinarria. Prozesu horren bidez, gai horretan			

trebatuko dira eta haien ekarpenak jasoko dira haurtxokoen testuinguruko estrategia baliagarriak definitzeko orduan.



4. SEXU-INDARKERIA HAURTZAROAN: Prebentzioa

Arduraduna: Teresa Zinkunegi/ Josean Castaño

HELBURUA:	Berdintasun-arloarekin genuen lankidetzarako gunea, pandemiaren ondorioz etenda geratu zena, berreskuratu eta haurtzaroan pairatzen den sexu-indarkeriaren prebentzioan aritzeko orientabideak definitzea, marko feminista batetik.		
EGOERA:	Martxan dago		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Lantaldean parte hartzen duten HNGen sustapeneko profesionalen kopurua	5 teknikari eta 3 hezitzaile	9 teknikari, 2 suspertzaile eta 4 hezitzaile	
Proiektu pilotua garatzeko prest dauden herrien kopurua	2	2	
ZER LORTU DA?			
Berdintasuneko eta sustapeneko teknikari eta hezitzailez (30 pertsona) osatutako taldean, hurrek familian pairatzen duten indarkeria sexuala prebenitzeko elkarrekin egin dezakegunaz hausnartu dugu ikasturtean zehar.			
Ibilbide horretan 6 saio egin ditugu:			
<ol style="list-style-type: none"> 1. Gaia jorrazteko marko teoriko kontzeptuala zehaztu 2. Haurrak nola komunikatzen diren eta nola entzuten diegun 3. Esku hartzeko zirkuituak: Gizarte-zerbitzuak, Ertzaintza eta esparru judiziala 4. 4 eta 5. saioak: prebentziorako praktikak eta esperientziak aztertu 6. Proiektu pilotuaren aurkezpena eta kontrastea 			
BALORAZIOA:			
Azken saioan balorazioa egin da, eta partaideek prozesuaren balorazio oso positiboa egin dute. Hurrek pairatzen duten indarkeria sexualaren			

arazoaren dimentsioaz jabetzeko baliagarria izan zaiela esan dute; horrekin batera, azpimarratu dute gaiari heltzeko markoa ikuspegi feministatik eraiki izanak eta esku-hartzea prebentzioan kokatzeak esku-hartzearen bidea argitzeko balio izan duela.

HURRENGO IKASTURTEA

Bukatu den fasean diseinatutako proiektu pilotua, era esperimentalean udalerrri batean edo batzuetan garatzeko asmoa dago; Aldundiak jarraipena egingo du, ebaluatu ondoren, denontzat baliagarriak izango diren orientabide batzuk definitzeko.



5. AUKERA-BERDINTASUNA ZERBITZUETAN: Inklusio-mahaia

Arduraduna: Leire Ostiza

HELBURUA:	HNGen sustapen-zerbitzuek bultzatuta, inklusio osoa sustatzea, haur eta nerabe guztiak bere baitan hartuz eta guztion beharretara egokituz, herritar ororen hezkuntza formal eta ez formaleko aukerak bermatzeko. Inklusioaren ikuspuntutik, eta segregazioa kontuan hartuz, aukera berdintasuna lantzea helburu du talde honek.		
EGOERA:	Bukatua		
ADIERAZLEAK:			
Inklusio-mahairako beharrezko eragileak identifikatu	Egina	Egina	
Inklusioa hobetzeko toki mailako ekintza diseinatu	% 75	% 100	
ZER LORTU DA?			
Parte hartu duten herrietako teknikariek inklusioaren kontzeptuaren eta bere helburu eta funtzioaz hausnartu da. Kasu honetan, hezkuntza formal eta ez formalean aukera-berdintasuna bermatzeko xedez lan egin da.			

Horrez gain, hainbat herritako praktika on edo berritzaileak ezagutu dira inklusio-mahai bat osatzeko eragile egokiak zein izan daitezkeen identifikatzeko.

Azkenik, udal-teknikariak inklusioan aurrerapausoak emateko eta, herri bakoitzaren errealitatera egokitzuz, inklusioa hobetzeko proposamenen lehen zirriborroa landu dute, haur eta nerabeak erdigunean jarrita. Lantalde honetan Anoetak, Donostiak, Elgoibarrek eta Ordiziak parte hartu dute.

BALORAZIOA:

Lantaldean parte hartu duten udalek, oro har, oso ongi baloratu dituzte edukia, metodologia, eta baita lanketa teoriko eta praktikoaren arteko oreka ere. Hala ere, gehiago sakontzeko beharra adierazi dute, eta batez ere bakoitzak bere errealitatera eramateko denbora falta izan dutela adierazi dute.

HURRENGO IKASTURTEA

Hurrengo ikasturtera begira, inklusio-mahaien zereginean sakontzeko beharra eta borondatea adierazi dute hainbat parte-hartzailek.



6. ESKU-HARTZE BIRTUALA: Maila optimorako bidean

Arduraduna: Urko Imaz



Lantaldea

HELBURUA: Azken ikasturteetan landutakoa gure zerbitzuetako errealitatera eramán eta esku-hartze birtuala HNGen sustapen-lanaren esparru gisa errotzen saiatzea da ekintza honen xedea.

EGOERA: Bukatuta

ADIERAZLEAK:

Lantaldeak izan duen ibilbidea dela-eta, ikasturte hasieran ezarritako adierazleak ez dira baliagarriak

ZER LORTU DA?

Lantaldean egindako 3 bilerekin gain, banakako bilerak ere egin dira udal-zerbitzuetan esku-hartze birtualarekin egiten den plangintza aztertzeko. Bestalde, zerbitzuetan teknologiaren erabilera adosteko dokumentua sortu da gure zerbitzuetan egiten den erabileran eragiteko. Horrekin batera, hartzaileekin adostasuna lortzeko ituna ere sortu da, gaiari buruzko lan hezigarria egiteko xedez. Eredu hauek haurren zein nerabeen zerbitzuetarako sortu dira eta udal bakoitzak aukera izango du bere errealitatera egokitzeko.

BALORAZIOA:

Lantaldearen azken bileran egindako balorazioaren arabera, landutakoa ondo ikusten da. Alde batetik, banakako bilerak egokiak izan dira, zerbitzu bakoitzaren errealitatean eragiteko baliagarriak izan direlako. Eta bestetik, gaia modu praktikoan landu izana ere ondo baloratzen da.

HURRENGO IKASTURTEA

Lantaldearen azken bileran parte hartu zuten profesionalek gaia garatzen jarraitu behar dela uste dute, nahiz eta hori nola egin definitu gabe dagoen. Gaia elkarrekin landu eta ikuspegiak partekatzeak aukera izatea positiboa dela iritzi bada ere, hausnarketa baino gehiago, gauza edo proiektu zehatzen inguruan aritzea lehenesten da.



7. 2030 AGENDA: Garapen Jasangarrirako Hezkuntza

Arduraduna: Nekane Aranburu

HELBURUA:	Gaztematika sarearen bidez, Garapen Jasangarrirako Hezkuntza haur, nerabe eta gazteen sustapenerako zerbitzuetan integratzen laguntzea. Horretarako, 2023 Agendako 4.7 xedea, Garapen Jasangarrirako Hezkuntza, oinarri hartuz, hainbat material eta tresna jaso dira <i>Jasangarritasunean hezten</i> dokumentuan, haurtxokoetan eta gaztelekuetan erabiltzeko.		
EGOERA:	Bukatuta		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
<i>Jasangarritasunean hezten</i> dokumentuaren kontrastea egitea	Egina	Bai	
Behin betiko dokumentua Komunitatean partekatzea	Gaztematika	Egina	Bai
ZER LORTU DA?			
2021-2022an sortu genuen " <i>Jasangarritasunean hezten eremu ez formalean. Haurtxokoak eta Gaztelekuak</i> " dokumentua UN Etxearen esku jarri dugu kontrastea egin eta osatzeko. Atal teorikoan nazioarteko markoetatik ekarpenak egin dira eta atal praktikoan baliabide pedagogikoak txertatu dira.			
Dokumentuaren zuzenketa eta maketazioa Komunikazio Bulegoak egin du.			
2030 Agendari buruzko ikastaroan parte hartu dutenei dokumentua eskaini zaie kontsultarako, modu osagarrian. Gaztematika Komunitatean eta <i>Gipuzkoangazte</i> webgunean guztion eskura jarri da. Kontsultarako esteka: https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/hezkuntza-baliabideak/jasangarritasunean-hezten/baliabideak			
BALORAZIOA:			
UN Etxeak egindako kontrastea positibotzat jotzen da dokumentua osatu eta balio erantsia ematen diolako. Haurtxoko eta gaztelekuetako errealitatera gerturatzeko saiakera egin da.			
Dagoeneko 2030 Agendako hainbat gai jorratzen dira sustapenerako zerbitzuetan. Halere, zeharkako loturei buruz hausnartzea eta ekintzara bideratutako ahalegina bizkortzea beharrezkoak dira.			
HURRENGO IKASTURTEA:			
Jasangarritasunerako hezkuntzaren gaia lantzen jarraituko dugu hurrengo legegintzaldian. Oraingoan, ekintzarik ez dago zehaztuta.			



8. SEXKUNTZA GAZTELEKUETAN: Sexualitate-txokoak.

Arduraduna: Nekane Aranburu

HELBURUA:	Pasa den ikasturteko ekintzari jarraipena emanez eta Sexkuntza marko teorikoan oinarrituta, Gipuzkoako gaztelekuetan sexualitatea lantzeko <i>Sexualitate-txokoak</i> gida osatu eta jendaurrean aurkeztea.		
EGOERA:	Bukatuta		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
<i>Sexualitate-txokoak</i> gida osatzea eta maketatzea	Egina	Bai	
<i>Sexualitate-txokoak</i> gida (haurren) eta nerabeen hezitzaileei aurkeztea	Egina	Bai	
ZER LORTU DA?			
2021-2022 ikasturtean lantaldean sortutako gida osatu eta maketatu ondoren, Eider Goiburuk lehenengo hezitzaileen foroan, azaroaren 16an, <i>Sexualitate-txokoak</i> gida aurkeztu zuen. Foroa haur eta nerabeen hezitzaileentzat izan zenez, hezitzaile talde osoarekin partekatu zen.			
Alde batetik, gida nerabeen sexualitatean eta Sexkuntza markoan kokatu zuen.			
Bestetik, sexualitate-txokoen oinarritzko printzipioak, helburuak, erabilera, edukiak eta hezitzaileen rola azaldu zituen.			
Gida Gipuzkoangazte webguneko Hezkuntza baliabideen ataleko Sexkuntzan dago eskura. Kontsultarako esteka: https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/gazteria/hezkuntza-baliabideak/sexkuntza/baliabideak			
BALORAZIOA:			
Modu positiboan baloratu da lantaldean egon den giroa, konfiantza eta egindako lana.			
Landu dena oso erabilgarria izan da sexualitateari buruzko oinarritzko ezagutzak barneratzeko.			
Halere, proposamena aurrera eramateko orduan, sexualitatearen gaiaren inguruan sakontzeko beharra azaldu da.			
HURRENGO IKASTURTEA:			
Ekintza amaitutzat ematen da. Sexkuntza markoa eta Sexualitate-txokoak gida erreferentziazko dokumentuak izango dira sexualitatearekin lotutako proiektuak egiteko eta trebakuntza antolatzeko.			

H N G K

9. ERASMUS+: Proiektu berriak
Arduraduna: Urko Imaz

HELBURUA:	Ekintza honen xedea da pandemia ondoren Erasmus+ programa berriz aztertu, eta HNGen sustapen-lanerako eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzea, datorren urterako proiektuak diseinatz. Aurrekoan profesionalen arteko proiektua diseinatu genuenez, aurten hura garatu, eta nerabe edo gazteen proiektu berriak diseinatuko ditugu interesa duten udalekin.		
EGOERA:	Bukatuta		
ADIERAZLEAK:		ESTANDARRA	EMAITZA
Programan interesa azaldu duten udalen balorazioa		7	8,8
ZER LORTU DA?			
Ikasturte hasieran profesionalen arteko topaketa antolatu eta burutu zen, eta bertan Gipuzkoako 5 profesionalak parte hartu zuten.			
Bestalde, 3 udalek 2 proiektu diseinatu eta martxan jarri dituzte, Ordiziako Udalak alde batetik eta Ibarako eta Oñatiko Udalek bestetik (hauek elkarrekin). Bi proiektuak onartuak izan dira eta martxan daude dagoeneko.			
BALORAZIOA:			
Orokorrean balorazio positiboa da, ikasturtean zehar parte hartu duten udalek 8,9/10eko balorazioa egin dute. 3 proiektuetan murgilduta egon diren profesionaleri galdetu zaie: Esloveniara joandako hezitzaileei eta proiektuen diseinuan aritutako teknikariei. Bestalde, diseinatutako proiektu guztiak egingo direla jakiteak aurrera egiteko bultzada eman digu.			
HURRENGO IKASTURTEA			
Ikasturte honetan diseinatutako bi proiektuak datorrenean garatuko dira; beraz, hori izango da hurrengo ikasturterako lehen erronka. Bestalde, proiektu gehiago sustatzeko ahalegina egingo da, Erasmus + programak zerbitzuetan interesgarriak diren hainbat gai lantzeko aukera ematen du-eta.			

H N G K

10. Etxebizitza buruzko ikerketa: Gipuzkoako gazteen mugikortasuna

Arduraduna: Xabier Ximenez

HELBURUA:	2020-21 ikasturtean, gazteak eta etxebizitza gaiaren inguruan hasiera eman genion gazteen mugikortasunari buruzko ikerlan berritzaile bati. Aurtengo helburua zen sortutako txostena jendaurrean aurkeztea.		
EGOERA:	Bukatuta		
ADIERAZLEAK:		ESTANDARRA	EMAITZA
Azterketaren txostena edukitzea		Egina	Bai
Jendaurreko aurkezpena egitea		Egina	Bai
ZER LORTU DA?			
Ikerketaren emaitzak gure web-orrian jarri dira: pdf txostena, txosten interaktiboa eta estatistika-taulak. Era berean, alkateei, zinegotziei, HNGen sustapen-teknikari guztiei eta EGKri horren berri eman zaie. Horrez gain, martxoko foroan aurkeztu genuen; eta bukatzeko, prentsan ere oihartzuna izan du.			
BALORAZIOA:			
Balorazio ona da. Alde batetik, udalen egoera primeran adierazten duelako eta, etxebizitza dela-eta, gazteek duten bizileku-mugikortasunari buruzko lehen ekarpena egin dugulako.			
Alde ilun bat aipatzekotan, txostenaren emaitzak gehiago zabaldu ezin izatea.			
HURRENGO IKASTURTEA			
Gaia lantzeko bide hau hemen amaitu da. Horren ordez, Emantzipazioaren Estrategia eta Gazteria Legea garatzeko bideei ekitea proposatzen da.			



11. TREBA GAZTEAK: ikastaroak

Arduraduna: Xabier Ximenez

HELBURUA:	Treba Gazteak prestakuntza-eskaintza gazteen emantzipazioko, garapeneko eta hazkunde pertsonal eta kolektiboko prozesuak sortzera bideratuta dago. Aurten, bereziki, udal guztiei eskaini zaie parte hartzeko aukera.		
EGOERA:	Bukatuta		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Egindako ikastaro-kopurua	Diseinatutako ikastaroen %75 gauzatzea	% 37.5	
Udal-kopurua	Gutxienez 10 udal	18 udal	
Gazteen asebetetzea	Gazteen batez besteko balorazioa: 7,5	9	
ZER LORTU DA?			
<p>Bigarren urtez landu dugu udalekin batera. Aurten, 18 udalekin garatu dugu, 25 saio eskainiz. Bestalde, lehen aldiz 16 urtetik gorako gazteak ere kontuan hartu dira. Eskaintza gai hauen inguruan egin da: Zaintzak: 14 saio; Sexkuntza: 6 saio; Zeharkakoak: 2 saio; eta Gaitasun kritikoa: 3 saio.</p> <p>Dena den, egitarau horretatik 9 saio bakarrik egin dira 7 herri/gunetan: Elgoibar, Zegama(2 saio), Ordizia, Gazteguneko-birtuala, Donostia-Kontadores (2 saio), Aizarnazabal eta Arrasate. Guztira, 119 gazteek parte hartu dute eta emandako balorazioa 9 puntukoa izan da.</p> <p>Horrez gain, aipagarria da, lurralde mailan (Gazteguneko) egindako saiakera birtuala: gaia ekologia izan da, eta 32 lagunek parte hartu dute.</p> <p>Landutako beste 6 gaiak hauek dira: Suizidioa (2) (Badabidebat), Zure burua maitatzen (Ainhoa Urretagoiena), Ekologia-Birtuala (Gorka Larnaga), Sexualitatearen koloreak (Hiruki Larroxa), Osasun mentala (2) (Ainhoa Urretagoiena) eta Adimen emozionala (Emoki). Saio gehienak tailerrak izan dira - 3 ordukoak- eta euskaraz.</p> <p>Dena den, aurten alde iluna izan da 11 herritan gazteek parte ez hartzea: Ibarra, Segura, Zarautz, Hernani, Legazpi, Lazkao, Irun, Irura, Urretxu, Urnieta eta Erreterria.</p>			

BALORAZIOA:

Aurreko atalean aipaturiko datuak kontuan harturik, emaitza gazi-gozoa izan da. Asebetetze maila oso altua eta partaidetza iazkoaren ia bikoitza izanik, herri askotan ezin izan dugu ekintza egin.

Dena den, orokorrean, emaitza onargarria da: egitaraua aurrera atera da, gazteen, udal-teknikarien eta irakasleen asebetetzea oso altua da eta gazteekin lan egiteko tresna egokia dela pentsatzen jarraitzen dugu.

HURRENGO IKASTURTEA

Gure ustez, hurrengo urtean beste saiakera bat egin behar genuke. Arrakasta lortu duten udalekin aurrera egin dezakegu eta berri batzuekin saiakera egin, baina kopuru mugatu batean.

Horrez gain, hobekuntza batzuk egin beharko genituzke: formatu berriak; partaideen kopuruak handitu; hezkuntza formalarekiko aliantzak; sare sozialetan iragarkiak; eta gazteen lana egonkortzeko tresnak sortu.



12. HNG-EN SUSTAPENENKO INBERTSIOA: Gipuzkoakoa aztertu

Arduraduna: Teresa Zinkunegi

HELBURUA:	Gaztematika Sarea osatzen duten Gipuzkoako udalek eta Aldundiak 2022 urtean haur, nerabe eta gazteen sustapenean inbertitu dutena aztertzea da ekintza honen helburua. HNGen sustapen-arloak azken urteotan administrazioentzat izan duen garrantzia ezagutu nahi da, eremu ekonomikoaren ebaluazioa eginez.		
EGOERA:	Bukatuta		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Martxoan txostena aurkeztu	Egin da	Egin da	
ZER LORTU DA?			
Urtero bezala, sarea osatzen duten sustapen-teknikariek eguneratutako datuez baliatuz, haur, nerabe eta gazteen sustapeneko inbertsioari buruzko txostena egin da. Urtea bukatzerakoan eguneratutako datu-basea erreparatu ondoren, datuak ustiari dira, eta txosten batean bildu da informazioa. Aurreikusita bezala, dokumentua martxo bukaeran Komunitatetik zabaldu da. 2022ko txostena legegintzaldiko laugarrena izanik, haur, nerabe eta gazteen sustapenean egindako inbertsioaren bilakaera jarraitzeko aukera eman digu.			
BALORAZIOA:			
Urtez urte egindako lanaren ondorioz, sustapen-teknikariek barneratuta dute datu ekonomikoaren bilketarako dinamika eta metodologia.			
Gure ustez, oso garrantzitsua da datu-bilketa horrekin jarraitzea sustapen-arloak lurraldean duen garrantzia eta ibilbidea ikusi ahal izateko.			
Txostenean jasotako informazioa toki zein lurralde mailan aztertzea komenigarria litzateke, ondorioak atera, eta etorkizunerako erronkak zehazteko.			
HURRENGO IKASTURTEA			
Inbertsioarekin lotutako datuak biltzen jarraitu beharko genuke; horrekin batera, datu-baseak datuen ustiaketarako ematen dituen aukerak hobetzen jarraitu beharko genuke.			



13. HITZegiten

Arduraduna: Josean Castaño

HELBURUA:	Ekintza honen xedea da haur, nerabe eta gazteen eskubideei buruzko eztabaidarako eta sentsibilizatorako gune bat izatea, haien sustapeneko gaiak lantzeko eta arduradun politikoak, teknikoak eta arlo horretan interesa duten pertsonak elkartzeko.		
EGOERA:	Bukatuta		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Egindako topaketen kopurua	3	1	
Parte-hartzaileen batez besteko balorazioa	>7	8,33	
ZER LORTU DA?			
2022-2023 ikasturterako programatutako hiru saioetatik bat egin da; hori bai, haurrak eta nerabeak hartu dira kontuan.			
Maiatzaren 30ean, "Nola ebaluatzen duten Gipuzkoako haur eta nerabeek beren ongizatea" jardunaldia egin genuen eta bertan Zmz? azterlana aurkeztu zen. Horren bidez, Gipuzkoako haur eta nerabeei hitza eman nahi izan diegu, haien ongizate-maila subjektiboa ezagutzeko. EDE Fundazioaren ikertzaileek aurkeztu zuten; eta guztira 34 parte-hartzaile izan ziren. Gazteei eta etxebizitzari buruzko beste jardunaldi bat ere aurreikusita zegoen, baina ez dugu garatu.			
BALORAZIOA:			
Egindako jardunaldiaren balorazioa ona da. Bertaratutakoen kopurua handia ez izan arren, parte-hartzaileek egiten duten balorazioa altua da 8,33.			
Ez dugu lortzen arduradun politikoek saio horietan parte hartzea, ekintzaren helburuetako bat hori den arren. Gutxi etortzen dira.			
Bestalde, egitaraua motz geratu da: hiru saio antolatu nahi genituen eta bakarra eraman dugu aurrera.			
HURRENGO IKASTURTEA			
Jarraitzekotan ekintzaren helburua berriz aztertu beharko dugu. Ez dugu lortzen arduradun politikoaren eta teknikoaren arteko eztabaida-gune bat izatea.			

H N G K 14. HERRI TXIKIETAN HNGen sustapena lantzeko proposamena
Arduraduna: Irati Izagirre

HELBURUA:	Zerbitzurik ez duten herri txikietan (1.000 biz >) haur, nerabe eta gazteen sustapena modu jarrai eta egonkorrean landu ahal izateko, Aldundiak hainbat herritan zerbitzua emango duen profesional talde bat kontratatzea.		
EGOERA:	Martxan da		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Proiektuan parte hartzen duten herrien kopurua	7	9	
Nerabe erabiltzaileen balorazioa	6/10	(uztailean)	
Proiektuaren balorazioa (udalak, GFA, elkarteak)	7/10	(azaroan)	
ZER LORTU DA?			
<p>Udalerrien zerrenda urrian argitaratu zen eta zerbitzua kudeatzeko eragilea, Kalexka, azaroan kontratatu zen. Taldearen kokapen eta jarraipena BTak egin du.</p> <p>Herri bakoitzeko eragileak eta baliabideak identifikatu eta egoeraren lehen irakurketa egin ostean, hezitzaileek tokian tokiko hartzaile eta gurasoei ekimena aurkeztu zieten. Nerabeekin aurrez aurreko lanean ari dira otsail amaiera ezker. <u>Martxotik apiril amaiera arte</u> lortutako emaitzak hauek dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - 9 udalerritan hasi da zerbitzua, tokian tokiko dinamika eta erritmoarekin - 179 nerabek proiektuaren berri izan dute (herri horietako nerabeen % 48) - Malgutasunez, data eta orduak nerabeekin adostuta, aurrez aurreko 57 saio egin dira eta horietan 103 nerabe bildu dira (11/herri/saioko) - Aste Santuko oporraldian 13 saio berezi egin dira 			
BALORAZIOA:			
Jarraipen eta balorazioko saioa maiatzean egin da, erreferente teknikoekin eta ordezkari politikoekin. Abiatzearen balorazioan zentratuko gara, baina positiboa izatea aurreikusten da BTtik. Herrietan harrera ona izan du eta proiektuaren xedean identifikatutako beharrei erantzuteko proposamen egokia dela dirudi.			

HURRENGO IKASTURTEA
Proiektua 2022ko azaroan abiatu zen, bi urterako. Hortaz, 2023-2024 ikasturte osoan zehar ere proiektua garatzen eta zerbitzua ematen jarraituko da.

H N G K 15. GAZTERIA-LEGEA: Garapen-segimendua
Arduraduna: Josean Castaño

HELBURUA:	Ekintza honen helburua da Gaztematikako eragile gisa Gazteria Legearen garapenetan parte hartu ahal izatea.		
EGOERA:	Martxan dago		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Martxoan txostena aurkeztu	Egin da	Ez da egin	
ZER LORTU DA?			
<p>Foru Aldundiko Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Zerbitzuak Legearen garapen-proposamenei buruz zuen informazio urria udal-teknikariei helaraztea, Batzorde Iraunkorraren eta Foroen bitartez.</p> <p>Informazio nahikoa ez dugunez, ezinezkoa izan da inolako txostenik egitea.</p>			
BALORAZIOA:			
Ikasturte honetan, Gazteriaren Legea gehiago garatzea eta Gipuzkoako erakundeek inplikazio handiagoa izatea espero genuen. Baina garapen hori ez da gertatu.			
Edonola ere, komenigarria litzateke Eusko Jaurlaritzako eta Gaztematikako teknikarien artean komunikazio-kanalen bat irekitzea, aurrerapen handiagorekin lan egin ahal izateko.			
HURRENGO IKASTURTEA			
Gazteriaren Legearen garapena udalak eta Aldundia inplikaturako dituen gai nagusi bihur daiteke hurrengo legegintzaldian. Beraz, plangintza berri bat egiterakoan kontuan hartu beharreko gaia da Gazteriaren Legearen garapena.			

H N G **K** 16.

UPV/EHU: Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearekiko elkarlana

Arduradunak: Josean Castaño eta Nekane Aranburu

HELBURUA:	Aldundiak sinatuta duen lankidetzaz hitzarmenaren baitan, UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearekin koordinatu Gaztematika sarea eta Unibertsitateko Komunitatea osatzen dutenen arteko elkarlana indartzuz.	
EGOERA:	Martxan dago Data: uztaila	
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearekin koordinazio-bilerak burutzeko	3	4
Gaztematika azaltzeko aurkezpenak egitea: -Aurkezpen orokorrak -Aurkezpen espezifikoak	Egina	Soilik aurkezpen orokorrak
Praktikak egiteko egutegia udalekin partekatzea	Egina	Egina
Gradu Amaierako Lanen jarraipena egitea	Egina	Egiten
ZER LORTU DA?		
<ul style="list-style-type: none"> - Aurtengo ikasturtean egin ditugun koordinaziorako bilerak hauek izan dira: 2022/10/18, 2022/11/10, 2023/02/24, 2023/05/25. - Gaztematika eta HNGen sustapen-arloa Unibertsitate komunitateari gerturatzeko aurkezpen orokorrak (euskaraz eta gaztelaniaz) otsailaren 28an egin dira. - Gaztematika sareko hainbat zentrotan praktikak egiteko informazioa partekatu da Komunitatean. - Gradu Amaierako Lanen jarraipena egiteko proposamen desberdinak zehazten ari gara egitasmoari ikusgarritasun handiagoa emateko. 		
BALORAZIOA:		
Gaztematika eta HNGen sustapen-arloa beste eragileekin partekatzeke beharri erantzuten dio ekintzak. Zentzu horretan indartu beharreko jarduerak da.		
Koordinazio-mahaiak positiboki baloratu du orain arte egindako bidea.		
HURRENGO IKASTURTEA:		
UPV/EHUko eta Gaztematikaren arteko elkarlanarekin jarraitzeko asmoa dugu.		

Hurrengo legegintzaldirako erronka izango da proiektu berriak elkarrekin sortu eta aurrera eramatea.

H N G **K** 17.

GAZTEMATIKAREN KOMUNIKAZIOA: planeko ekintzei estaldura eman

Arduradunak: Lierni Goya

HELBURUA:	Haur, nerabe eta gazteen sustapen-arloan egiten den lana hartzaileengana iristea eta ikusgai egitea; bai arloko politikak, bai programak eta bai ekimenak ere.	
EGOERA:	Martxan dago	Data: Irailetik ekainera bitartekoa da.
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA
Planeko ekintzen arduradunarekin adostutako komunikazio-lanak egin lurralde eta toki-mailan	% 90	% 100
Planaz aparteko urteko komunikazio-lanak egin	% 90	% 100%
ZER LORTU DA?		
Haur, nerabe eta gazteentzako programek inoiz baino irisgarritasun handiagoa izan dute, horren isla da HNGen sustapenaren kanal nagusiak sekulan baino ikustaldi gehiago izan dituela.		
Horrez gain, Gaztematikaren hainbat eragilerengan erreferentzialtasuna handitu da, esate baterako, TREBAren kasuan. Planeko ekintzetan komunikazio-lanak egiteko modua sistematizatu da, eta komunikazioaren garrantziaren gorakada etengabea izaten ari da ikasturtetik ikasturtera. Horren adibide dugu planeko ia ekintza guztietan komunikazioa landu izana.		
Gainera, kasuistika berrien aurrean, erantzun berritzaileak diseinatu dira; produktu erakargarri eta funtzionalak (ikasturtearen laburpen-bideoa, irudi dinamikoak, infografia interaktiboak, ikus-entzunezko formatu berriak, etab.).		
BALORAZIOA:		
Azken urteotan komunikazioaren garrantzia areagotuz doa eta, horrekin batera, planeko ekintzek gero eta komunikazio-lan eta -estaldura gehiago eskatzen dute. Ikasturte honetan 27 ekintzatik 2 bakarrik izan dira halako lanketarik izan ez dutenak. Horregatik, ditugun baliabideak kontuan hartuta, indarrak neurtzea komeni da.		

Aholkularitzari dagokionez ere, bai hezitzaileekin, bai teknikariek dugun harremana emankorra izaten ari da, eta arlo desberdinei buruzko kontsultek gora egin dute ikasturte honetan: komunikazio-planak, baliabideen sorrera, zerbitzuetan datu eta irudien erabilerari buruzko zalantzak, etab..

HURRENGO IKASTURTEA

Datorren ikasturtean ere plangintzako ekintzetan komunikazio-lanak txertatuko dira; eta plangintzak berak markatuko du non jarriko diren indarrak.

H N G **K**

18. GAZTEMATIKA DATUETAN

Arduraduna: : Teresa Zinkunegi

HELBURUA: Gaztematika sarearen ibilbidea eta estaldura ezagutzeko, datu esanguratsuenak zehaztu, bildu eta eguneratzea izango da ekintza honen helburu nagusia.

Modu horretan, Gaztematikaren ikusgaitasuna lantzearekin batera, Gipuzkoako HNGen sustapen-arloaren bilakaera ebaluatzeko aukera izango dugu.

EGOERA: Martxan dago

ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA
2021eko datuak partekatzea	Abendua	
2022ko datuak partekatzea	Ekaina	

ZER LORTU DA?

Gaztematika sarearen hedapen eta funtzionamenduari buruzko datuak bildu ondoren, esanguratsuenak aukeratu dira adierazle-sorta bat osatuz. Aukeraketa hori SIISek egindako datu-bilketarekin alderatu da, eta behin betiko sorta izango dena zehaztu dugu. Horrekin batera, datuak eguneratzeko epeak finkatu eta arduradunak izendatu dira.

Ondoren, datuen zabalkuntza nola egin zehaztu dugu: batetik, arlo teknikoarekin partekatzeko datu esanguratsuenak txosten batean bilduko dira, eta Komunitatetik zabalduko da; bestetik, bigarren aukeraketa bat egingo da, datu gutxi batzuk web-orriaren bidez zabaltzeko.

BALORAZIOA:

Lortu dugu Gaztematika sarearen inguruko adierazle sorta definitzea. Lan-ildo honetan lehenengo urratsak bakarrik eman ditugunez, hobekuntzarako bide luzea izango dugu; baina horretarako ezinbestekoa izango da datuak erabiltzen hastea, orduan jakingo baitugu zer gehitu edo kendu behar dugun sortatik.

HURRENGO IKASTURTEA

Adierazle-sorta eguneratzen jarraituko dugu eta tresna etengabe hobetzen.

H N G K 19. TREBA profesionalak: Hezitzaileak
Arduraduna: Nekane Aranburu

HELBURUA:	Gipuzkoako haurtxoko eta gaztelekuetako hezitzaileen prestakuntza-beharrei erantzutea.	
EGOERA:	Bukatuta	
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA
Planifikatutako ikastaroak egitea	% 80	% 100
Prestakuntza-saio bakoitzaren ebaluaziorako zehaztu diren estandarrak betetzea:		
-Izena eman dutenen batez besteko parte-hartzea	% 80	Bai
-Hezitzaileen batez besteko balorazioak	7,5	8,44
ZER LORTU DA?		
2022-2023 ikasturtean egin diren ikastaroak hauek izan dira:		
	Ikastaroa	Balorazioa
1 Tratu onak gorpuzten (Ikertze)		
Haurren hezitzaileak: 24 (21 emakume, 3 gizon)		8,32
Nerabeen hezitzaileak: 20 (17 emakume, 3 gizon)		9,24
2 Sexualitatearen hezkuntza (Eider Goiburua)		
Nerabeen hezitzaileak: 30 (23 emakume, 7 gizon)		9,00
3 Tek. digitalen eta sare sozialen erabilera arduratsua (Digitalde):		
Haurren hezitzaileak: 11 hezitzaile (10 emakume, 1 gizon) eta 3 teknikari (2 emakume, 1 gizon)		9,39
Nerabeen hezitzaileak: 23 hezitzaile (20 emakume, 3 gizon) eta 3 teknikari (2 emakume, 1 gizon)		7,58
4 2030 Agenda eraldaketarako hezkuntzan (UN Etxea)		
Haurren hezitzaileak: 13 (12 emakume, 1 gizon)		7,79
Nerabeen hezitzaileak: 16 (13 emakume, 3 gizon)		7,78
BALORAZIOA:		
Aurtengo ikasturtean aurreikusitako ikastaro guztiak egin dira. Eskaintza guztia aurrez-aurrekoa izan da. Izena eman dutenen batez besteko parte-hartzea altua izan da, baina datu zehatza ezin dugu eman.		
HURRENGO IKASTURTEA:		
Legegintzaldi berriaren planari eta hezitzaileen beharrei erantzuneko dien prestakuntza zehaztu eta martxan jarri beharko dugu.		

H N G K 20. TREBA PROFESIONALAK: teknikariak
Arduraduna: Irene Sierra

HELBURUA:	Ikasturteko planifikazioan jasotako lan-ildoak garatzeko, HNGen sustapeneko teknikarien prestakuntza-beharrik identifikatu, eta horiek betetzeko prestakuntza-eskaintza diseinatu eta aurrera eramatea.	
EGOERA:	Bukatuta	
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA
Egindako prestakuntza-saioak	4	4
Saioen balorazioak	8/10	8
ZER LORTU DA?		
2022/2023 ikasturtean “TREBA Profesionalak: teknikariak” ekintzan aurreikusitako saio guztiak egin dira.		
Ikastaroen formatua kasu guztietan aurrez aurrekoa izan da eta, parte-hartzeari dagokionez, gorabeherak egon dira. Saiotako parte-hartzaileen kopurua 12, 17, 12 eta 15 izan da, hurrenez hurren. Saioen iraupenari dagokionez, lautatik hiru goiz batekoak izan dira eta ikastaro bakarra egon da bi saioko iraupenarekin. Prestakuntzen batz besteko iraupena 4 ordukoa izan da eta guztira 16 prestakuntza-ordu eskaini dira ikasturte honetan.		
	ikastaroa	datak
1 Nola lantzen da Sexualitatea eta Sexu-Hezkuntza zure herrian?	2022/12/13	8,5
2 Teknologia digitalen eta sare sozialen erabilera arduratsua haur eta nerabeen artean	2023/02/02	7,9
3 2030 Agenda eraldaketarako hezkuntzan. Ekintzarako garaia	2023/03/22 - 2023/03/30	6,9
4 Haur eta nerabeen parte-hartzea Gipuzkoan. Kontseiluak (CAI, Oinherri eta HauRekin)	2023/05/10	8,7
BALORAZIOA:		
Orokorrean eskaintzaren balorazio positiboa egin da. Ebaluazio-galdetegietan gehien aipatu diren iritziak hauek izan dira:		
<ul style="list-style-type: none"> - Saioak motz gelditzen dira gaietan sakontzeko (iraupena) - Gaietan gehiago sakontzeko beharra (garapena) 		
HURRENGO IKASTURTEA		
2023/2024 ikasturteari begira, lurralde-planean, teknikarien beharretan eta testuinguruan antzematen diren gaiak hautatuko dira, orain arte bezala; eta ahalegina egingo da gaien sakontze mailan. Bestalde, TREBAren koordinazio-gunea baliatuko da eskaintza ahalik eta integral eta koherenteena eskaintzeko.		

H N G K 21. ARDURADUN POLITIKO BERRIAK: Harrera prestatu
Arduraduna: Josen Castaño

HELBURUA:	Legealdi hau bukatzean dago; izan ere, 2023ko maiatzean toki mailako hauteskundeak egingo dira. Zinegotzi berrientzako harrera prestatu behar da, Gaztematika ezagutu dezaten eta sarean inplikaturako eragileak izan daitezzen.	
EGOERA:	Martxan dago	
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA
Lan-proposamena egin izatea	Dokumentua martxoan aurkeztuta	Ez da bete
Materialak eginda eta Gaztematikako teknikarien eskura jarrita egotea	Ekainaren 14a baino lehen	
ZER LORTU DA?		
Zinegotzi berriei harrera egiteko aurreikusita genuen materialen lanketak atzerapen handia du aurreikusitako planarekiko. Materialak ezin izango dira udal-teknikariekin partekatu aurreikusitako datan. Beraz, data eta proposamen berriak prestatu beharko ditugu.		
BALORAZIOA:		
HURRENGO IKASTURTEA:		
Ekintzak jarraipena izan beharko du datorren ikasturtean, zinegotziei harrera egiteko proposamen zehatz batekin.		

H N G K 22. HNGen ARLOA: Adin-tarte bakoitzeko erronka nagusiak
Arduraduna: Josen Castaño

HELBURUA:	Ekintza honen helburua da adin-tarte bakoitzari (haurrak, nerabeak, gazteak) dagokion dokumentu batean datozen lau urteetan lantzeko izango ditugun erronka nagusiak jasotzea. Material horiek erreferentziazkoak izango dira datozen legegintzaldiko Gaztematikaren plangintza estrategikoa egiteko.		
EGOERA:	Bukatua		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Materialak eginda eta Gaztematikako teknikarien eskura jarrita egotea	Ekainaren 14a baino lehen	Egina	
ZER LORTU DA?			
Haurren, nerabeen eta gazteen ataletako arduradunek dokumentu espezifiko bana egin dute adin-tarte horietako bakoitzari buruz. Dokumentu horretan, dagokion adin-tarterako une honetan azpimarragarrienak diren adierazleak jasotzen dira, eta erronka-proposamen bat aurkezten da, datozen lau urteetan horien lorpenean aurrera egiteko. Dokumentuak aurreikusitako epean amaitu dira eta, horri esker, 2023-2027 plangintza lantzen hasteko orduan erabili ahal izan dira.			
BALORAZIOA:			
Baterako baloraziorik egin ez denez, landutako materialek balio izan dute Gipuzkoan haurren, nerabeen eta gazteen sustapen-politikek une honetan dituzten erronka nagusiak aztertzeke. Oinarrizko materiala izan da, oso egokia, beste batzuekin batera 2023-2027 plangintza lantzen hasteko.			
HURRENGO IKASTURTEA:			

H N G **K** **23. AZKEN LAU URTEETAKO HNGen SUSTAPENAREN ARGAZKIA**

Arduraduna: Teresa Zinkunegi

HELBURUA:	Ekintza honen bidez neurtu nahi da Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sareak 2019-2023 legegintzaldian lortu duen hedapena.		
EGOERA:	Bukatuta		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Bilakaera jasotzen duen dokumentua egin	Egitea	Egina	
ZER LORTU DA?			
Gaztematika sareko sustapen-teknikariek Gaztesare datu-basean jasotako informazioari esker, bukatu berri den legegintzaldian sareak izan duen hedapena eta bilakaera neurtzea lortu dugu.			
Aurten egindako azterketa, mota honetako hirugarrena denez, alderaketak egiteko aukera izan dugu. Hain zuzen 2015, 2018 eta 2022ko datuak jasota izateak aukera eman digu urte horietan zehar Gaztematikak eduki duen bilakaera eta hedapena neurtzeko.			
BALORAZIOA:			
Datuetan oinarritutako kudeaketa-prozesuak garatzeko ezinbestekoak dira horrelako txostenak. Horrekin batera, pixkanaka, sarearen ibilbide historikoa jasotzen ari gara.			
Datuak jasotzeko erabiltzen dugun tresnak arazo dezente eman ditu, eta horrek prozesua zaildu eta moteldu egin du.			
Gaztematika osatzen dugun teknikari guztien ardura da datu-bilketa; horregatik ezinbestekoa da guztion inplikazioa lan honetan.			
HURRENGO IKASTURTEA			
Datuak bildu eta ustiatzeko dinamikak egiten jarraitu beharko genuke. Horrez gain, erabilitako metodologia baloratu, eta hobekuntzak identifikatu behar genituzke.			

H N G **K** **24 PROFESIONALEN ERROLDA osatu**
Arduraduna: Irati Izagirre

HELBURUA:	Azken urteotan hezitzaile nahiz teknikarien kolektiboetan izan den eboluzioa ezagutzeko, HNGen sustapenean lan egiten dugun profesionalon profila eta lan-baldintzak azaltzen dituen txostena osatu		
EGOERA:	Martxan da: ikasturte amaiera		
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA	
Teknikarien eta hezitzaileen errolden txostenak osatu	Ekainean partekatzea	(irailerako)	
ZER LORTU DA?			
Erroldaren analisirako Gaztesareko datuak baliatuko zirela jakinik, Gaztesareren 2022ko eguneraketan, giza baliabideen atala gaurkotu eta ondo betetzen lagundu diegu udal-teknikariei.			
Aldi berean, IZFERekin elkarlanean jarraitu dugu Gaztesare aplikazioan datuen ustiaketarako beharrezkoak diren moldaketak lortzeko.			
Prestaketa eta fidagarritasuna bermatzeko doitze-lan horiek apiril amaiera bitarte luzatu ziren. Apirilean Gaztesarek langileen datuak ustiatzeko baldintza tekniko egokiak eskaintzen zituen eta datu-basea erabat elikatua zegoen.			
Ebaluazio hau egiteko unean informazioa ustiatzen hasiak gara, baina txostenak ez daude amaituta.			
BALORAZIOA:			
Gaztesare datu-baseko atal ezberdinak elikatu eta eguneratzea obligazioa den arren, aurten giza baliabideetan jarritako fokuak erakutsi duenez, atal hau ez zegoen eguneratuta. Datuak osatu eta ziurtatzeko lana uste baino astunagoa izan da.			
Ekintzaren egutegia hilabetez luzatu eta txostenak ikasturte amaieran partekatu ahal izatea aurreikusten da.			
HURRENGO IKASTURTEA			
HNGen sustapeneko profesionalon errolda eta honen azterketa legegintzaldi berrira begira egingo den hausnarketa elikatzeko erabili ahal izango dira.			

H N G **K** **25. LEGEGINTZALDIAREN EBALUAZIOA (2019/2023)**

Arduraduna: Ainara Iraeta

HELBURUA:	Gaztematikaren azken 4 urteetako jardunari buruzko balorazio partekatua egitea	
EGOERA:	Bukatuta	
ADIERAZLEAK:	ESTANDARRA	EMAITZA
Partaidetzazko ebaluazio partekatua	Profil guztiak ordezkaturata	Bai
Ebaluazio-txostena erredaktaturata	Egina	Egina
ZER LORTU DA?		
<p>Legegintzaldiaren ebaluazioa egiteko bi dokumentu nagusi landu dira:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Gaztematikaren azken lau urteetako jardunari buruzko informazio- eta datu-bilketa jasotzen duen dokumentua. 2. Taldeetan ateratako ideia nagusien bilketa jasotzen duen txostena aurkeztu da. Bertan, hausnarketa- eta eztabaida-prozesu horren ondorio eta ideia nagusiak jasotzen dituen idatzia bideratu da, hurrengo legegintzaldirako identifikatu eta definitzen diren erronkei begira lagungarria izateko xede duena. <p>Lehen dokumentua oinarri izanik, hausnarketarako abiapuntu izan nahi duten datu eta informazioekin, zazpi gai desberdini buruzko zazpi lantalde antolatu eta bideratu dira. Talde horietan, gaiaren arabera eremu hauek landu dira: irisgarritasuna, gardentasuna, sormena, helburuak eta zehar-lerroak, itzulketa eta lidergoa eta baliabideak. Lantalde horietan, lehenik eta behin ebaluazioa egitera bideratutako hausnarketa partekatua egin da. Ondoren eta hobetzeko puntuak identifikatzeko aldera, hurrengo legegintzaldiko erronkak definitzeko dinamikak burutu dira.</p>		
BALORAZIOA:		
<p>Lantalde bakoitzean Gaztematikako parte diren eragile guztien ordezkaritza ahalbidetu bada ere, ez da beti taldeen aniztasun nahiko lortu.</p> <p>Hezitzaileekin lanketa berezi bat egin da, eta euren eskaera eta balorazioak Hezitzaileen Foroan landutakoarekin txertatu dira txosten honetan. Zailtasun handiak izan ditugu irakurketa partekatua eta partaidetzazkoa egiteko.</p>		
HURRENGO IKASTURTEA		

C. Ondorio nagusiak

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN ONGIZATEA SUSTATU

Ildo estrategiko honen barruan aurreikusita zeuden hiru ekintzetatik bi guztiz garatu ditugu, eta hirugarrena, lan erdia burututa zegoela, bertan behera geratu zen martxoan.

Haur, nerabe eta gazteen ongizatea sustatzeko beharrezkoa da haien ongizate maila ezagutzea. Bide horretan, Gipuzkoako haur eta nerabeek beren ongizateaz duten pertzepzioa ezagutzeko azterlan zabal eta sakon bat egin dugu, “Zmz Haur eta nerabeen ahotsa” alegia.

Gurasotasun positiboa landu eta sustatzeko, haur eta nerabeen gurasoentzako hitzaldi eta tailerrak antolatu dira Gipuzkoa osoan zehar, ikasturte honetan bigarren edizioa izan duen TREBA Gurasoak programaren barruan. Eta aurrera begira ere trebakuntza-programa hori lantzen jarraitu eta indartzeko asmoa dago. Izan ere, esperientzia oso positiboa izan da. Urrats handi bat da gurasoekin lanean hastea, zerbitzuetatik gurasoengana iristeko beste bide bat delako.

Azkenik, gazteen osasun afektibo-sexuala eta sozio-emozionala bultzatzeko, sexualitatearen hezkuntzarekin lotutako ekintza bat landu dugu: gaia jorrazteko podcast bat prestatu da. Podcast pilotua egin eta gero, izandako kostua eta harrera ikusirik, aurrera ez jarraitzea erabaki zen.

HAUR, NERABE ETA GAZTEEN AUKERA-BERDINTASUNA BULTZATU

Ildo estrategiko honen baitan aurreikusita zeuden ekintza guztiak garatu dira. Indarkeria, sexualitatea, inklusioa eta gazteen mugikortasuna izan dira, besteak beste, landu ditugun gaiak.

Haurren artean genero-estereotipoak ekiditeko eta sexu-abusuen errealitateari prebentzioaren ikuspuntutik heltzeko helburuarekin bi ekintza jarri dira martxan: “Sexkuntza haurtxokoetan” eta “Sexu-indarkeria haurtzaroan”, eta biek jarraipena izango dute datorren ikasturtean. Alde batetik, gida bat osatuko da aisia hezigarriko espazioetan haurrekin sexu-hezkuntza lantzeko, eta bestetik, proiektu pilotu bat garatzea espero da haurtzaroko sexu-indarkeria prebentzioaren ikuspuntutik lantzeko.

Nerabeen artean berdintasuna, aniztasun afektibo-sexualaren errespetua eta sexu-hezkuntza sustatzeko, *Sexualitate-txokoak* izeneko gida osatu, eta hezitzaileei aurkeztu zaie. Horrez gain, nerabeen zerbitzuetan diharduten hezitzaileei sexualitateari buruzko prestakuntza eskaini zaie.

Haurren eta nerabeen zerbitzuetan aukera-berdintasuna indartzeko asmoz, teknikarien lantalde bat osatu da herrietan inklusio-mahaiak martxan jartzeko edo dagoeneko daudenak ezagutzeko. Lana aurreikusi bezala burutu da. Aurrera begira, inklusioaren gaia lantzen jarraitzea da asmoa.

Gazteen lan-eremuan etxebizitzari buruzko ikerketa batek Gipuzkoako gazteen mugikortasuna aztertu, eta txosten batean jaso da. Emaitzak martxoko foro teknikoan aurkeztu ziren. Etorkizunari begira, gaia emantzipazio-estrategiarekin eta Gazteria Legearen garapenarekin uztartuko da.



HAUR, NERABE ETA GAZTEEN HERRITARTASUN AKTIBOA ERRAZTU, HAIEN PARTE-HARTZEA BULTZATUZ

Ildo estrategiko honi lotuta sei helburu landu dira aurten. Hasteko, nortasun digitalaren alorrean “Esku-hartze birtuala: maila optimorako bidean” ekintza jorratu da, bai haurren eremuan eta baita nerabeenean ere. Gaia lantaldean garatu da, gogobetetze maila onarekin eta hurrengo urtean jarraitzeko asmoz.

Horrez gain, nerabeen arloan, “2030 Agenda: Garapen Jasangarrirako Hezkuntza” ekintza garatu da, haurrak eta nerabeak sentsibilizatu eta ingurumenarekiko jarrera jasangarriak eta praktika onak sustatzeko. Emaidza onak izan ditu eta jarraitzea aurreikusten da.

“Erasmus+: Proiektu berriak” ekintza ere garatu da, nerabeen garapen pertsonal eta soziala, autonomia eta esperimentazioa sustatzeko aisia-programak bultzatu eta eskaintzeko helburuarekin. Honen ibilbidea ere ona izan da eta jadanik hainbat egitasmo diseinatu dira hurrengo urtean garatzeko.

Azkenik, gazteen arloan bi helburu garatu dira. Lehenik, gazteentzako sustapeneko eskaintza hobetzeko ahaleginean, Treba gazteak ikastaroak eskaini zaizkie emaitza desberdinekin; halere, egin direnek asebetetze maila altua lortu dute. Gazteei halako trebakuntza eskaintzen jarraituko dugu. Eta bukatzeko, “Gazteekin elkarlanean: Gazteen eta administrazioaren arteko egitasmoa” izeneko ekintza diseinatuta dago. Gazteen partaidetza indartzeko estrategiak sustatzea zen honen helburua eta, horregatik, uste dugu aurrerago berriz helduko diogula.



GAZTEMATIKAREN KUDEAKETARAKO PARTAIDETZAZKO GOBERNANTZA BULTZATU

Ildo honetan zehaztutako helburuetako bat zen Haur, nerabe eta gazteen eskubide eta beharrak erakundeen agendan txertatzea. Bi izan dira hori lortzeko egin ditugun ekintzak.

Batetik, haur, nerabe eta gazteen sustapen-arloko aurrekontuen eta gastuen segimendua egin dugu, erakunde bakoitzaren aurrekontu orokorrarekin duten lotura aztertuz. Horri esker, une honetan, legegintzaldiaren ibilbide osoa jasota daukagu, bilakaera ikusteko eta konparazioak egiteko.

Bestetik, haurren, nerabeen eta gazteen sustapeneko gaiei buruzko eztabaida-gunean (HITZegiten) biltzen jarraitu dugu, gure arloko arduradun politiko eta teknikoen eta gaian interesa duten pertsonen partaidetzarekin. Hala ere, ekintza honen helburuetako bat politikariekin gune bat partekatzea izanik, ez dugu lortzen haiek saioetan gehiago parte hartzea. Aurreikusitako hiru saioetatik bakar bat garatu dugu, eta berriro ere gazteei eskainitakoa geratu da egin gabe.

Toki zein lurralde mailan Gaztematikako eragileen elkarlana sustatzeari dagokionez, UPV/EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearekin, aldiz, elkarlanean aritu gara.

Bestalde, “Gure Plaza txo!” egitasmoa martxan jartzea lortu dugu: zerbitzurik ez duten herri txikietan (1.000 biz >) haur, nerabe eta gazteen sustapena modu jarrai eta egonkorrean landu ahal izateko, 9 udalerritan hasi da zerbitzua, tokian tokiko dinamika eta erritmoarekin.

Komunikazioaren arloan, haur, nerabe eta gazteentzako programek inoiz baino irisgarritasun handiagoa izan dute; horren isla dira HNGen sustapeneko kanalen ikustaldiak. Horrekin batera, Gaztematikaren hainbat eragilerengan erreferentzialtasuna handitzea lortu dugu.

“Gaztematika datuetan” ekintzarekin lortu dugu gure arloko adierazleak ondo definitzea, adostea, finkatzea eta orain datuak eguneratzen ari gara. Aurrerapauso handia da gure sarearentzat eta, bereziki, bere ikusgaitasunarentzat.

Gaztematikako teknikari eta hezitzaileen ezagutza eta kualifikazioa bultzatzeko, prestakuntzak garatu dira eta lehenetsitako gaiak lotura zuzena izan dute planeko ekintzekin.

Hezitzaile eta teknikarientzako prestakuntzan parte-hartzea arrakastatsua eta ondo baloratua izan da. Gainera, ikastaro guztiak aurrez aurreko formatura itzuli dira.



Ikasturte honetan bi gai landu ditugu teknikari eta hezitzaileekin, elkarrekin eta elkar elikatuz; hala, aukera izan dugu batzuek besteen lana hobeto ezagutzeko eta koherentzian sakontzeko.

Planifikazioa hobetzeko, Gaztematikaren datuak jaso ondoren, profesionalen errolda eguneratzen ari gara. Bestalde, haur, nerabe eta gazteei buruzko txostenak prestatu ditugu arlo hauetan hurrengo lau urtetarako erronkak zeintzuk izan daitezkeen aztertzeko. Azkenik, 2019-2023 legegintzaldiaren ebaluazio-prozesua burutu dugu. Material hauek guztiak oinarri garrantzitsua izan dira hurrengo planifikazioaren zutabeak identifikatzeko.


Orain, denborarik galdu gabe, arduradun politiko berrien harrera egiteko materialak prestatzen hasiko gara.



D. Sistemaren lurralde mailako funtzionamendua




- +
- +
- +





AZTEMATIKA



- +
- +
- +
- +

